



# Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1997ko ekainak 19 • 124. zka.



**Udaren etorrerarekin  
hainbat usadio**

**Dabid Errasti antzezlea ■ Joxemi Elizburu txirrindularia**



# 1997KO UDA IKASTAROAK

Ez ahaztu Udal Euskaltegian udan ere euskara ikas dezakezula.

Aurten gainera, aukera berri bat eskaintzen dizugu, **mintzamina** lantzeko **talde bereziak**.

**ANIMA ZAITEZ!**

**Ekainaren 24tik uztailaren 18ra.**

**Goizez eta arratsaldez  
16 urtetik gorakoentzat**

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA  
Durana 11 (Aretxabaleta)  
Fernando Enparantza (Eskoriatza)  
☎ 79 21 68



**NISSAN**


**Aldibi Autoak, S.A.**

Zigorrola, 1  
20500 ARRASATE  
Tfnoa: 71 20 02 • Faxa: 79 65 65



**Zatoz eta ezagutu gaitzazu!**

**Hemen zure amets guztiak egon daitezke.**



Volvo

Auto Suecia, S.A.



Mercedes

Izar Autoak S.L.



Hyundai

Musakola Autoak S.L.



Mazda

Musakoja Autoak S.L.



Chrysler

Co-Car, S.A.



Nissan

Musakola Autoak S.L.



# San Juan gauak badu zeozer berezia?

**Leire Urrea**  
(Ikaslea)

San Juan gauean sua eta musika egoten da eta lagunok ondo pasatzen dugu. Bestalde, gauak ez du magi-kotasunik niretzat.



**Raquel Garcia**  
(Etxekoandrea)

Nire semearen urtebete-tzea da egun horretan eta sua eta jaia izaten dira egun horretako ezaugarriak.


Bestalde, udan sartzen garela kontutan izanik pozgarria da hori.



**Pello Orobengoa**  
(Langilea)

Tantaia jasotzea eta San Juan sua oso ohitura politak dira.

Ekainaren 21ean urteko egunik luzeena ospatzen da. Honek eguna hobeto aprobetxatzeko aukera ematen du.



**Javi Alonso**  
(Langilea)

Uda eta jaiak hasten dira. San Juan sua egiten da egun horretan eta ohitura polita da hori, baina niretzat ez du esanahi berezirik.



## eskutitza



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

## Nola egin eskilara gogorragoak

Pasa den zapatuan Urkulu urtegitik belta bat eman eta lagun batzuekin elkartzeko gelditu nintzen plazan. Zoritarrez, plazako eskilaretan behera jeisten lasai-lasai nindoala, muturrez aurrera jausi nintzen, inguruan zegoen jendeak harriturik begiratzen ninduen bitartean. Gero konturatu nintzen nire trebetasun faltaz gain, plazako eskilara apurtuta zegoela zenbait lekutan.

Egun berean jakin izan nuen beste adineko pertsona bat ere plazatik Durana kalera dauden eskilaretan jausi egin zela (barandilarik ez dago bertan).

Ni ez naiz jausi den lehena eta ezta azkena ere izango. Plazako eskilarak, alde batekoak batez ere, apurtuta daude eta jendeak susto eta muturreko bat baino gehiago hartu du bertan. Egoera honi irtenbide bat aurkitu beharko litzaioke: pisuzko mate-

riala kontuz garraiatuz eskilaratan gora eta behera edo eta bestela eskilara gogorragoak egin. *Nola? Agian Guggenheim museoko titaniozko plakak erabiliz.*

A.I.

Ekainaren 20an Arrasaten egingo den kontzertuko sarreraren irabazleak **Larraitx Arrese, Ekaitz Filarmendi, Aitor Laskurain, Aitor Bengoa, Antxon Bengoa** eta **Lierni Uribesalgo** izan dira.

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Arantazu Zuazabeitia, Inma Miguel, Loramendi E. E., kultura saila, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609  
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



## Kurtzebarri eskolako egunean bazkari arrakastatsua

Ekainaren 7 eta 10ean ospatu ziren Kurtzebarri eskolako eguneko ekintzak. Horien artean aipatzekoa da zapatuan egin zen guraso, ikasle eta irakasleen arteko bazkaria. Oso arrakastatsua izan zen, 300 bat lagun hurbildu zen Iturrigorri frontoian egin zen bazkarira. Bazkal aurretik inguruko auzoetatik ibilaldia egin zen eta bazkal ostean, Karaokea eta Kintanilaren dantzaldiarekin giro bikaina sortu zen.

Ekainaren 10ean bestetik, mendi irteera, gimnasia erritmiko erakustaldia eta mago bat izan ziren besteak beste, eguna bete zuten ekitaldiak.

## Herritarren eskariak udaletxetik bideratu ahal izango dira

### Foru Aldundira

Herritarren eskaerak udaletxetik bideratu ahal izango dira aurrerantzean Foru Aldundira, bi aldeek adostutako hitzarmenari esker. Modu honetan, Foru Aldundiko edozein departamentura eskaera egiteko udaletxean bertan egin ahal izango da eta ez da Donostiaraino joan beharrik izango.

Hitzarmena martxoaren 17ko bilkuran onartu bazen ere, apirilaren 10ean sinatu eta ordutik dago indarrean. Oraindik herritarrek ez dute zerbitzua erabili, agian jakinaren ganean ez egoteagatik. Aurrerantzean, beraz, edozein herritarrek erabili dezake Udalak eskaintzen duen aukera berri hau. Lanen kontratazio alorra zerbitzu honetatik kanpo gelditzen da.

## Kirol teknikari lanposturako instantzia aurkezteko epea zabalik

Ekainaren 2an Estatuko boletin ofizialean argitaratu ostean, kiroleterako kirol teknikari lanposturako instantzia aurkezteko epea zabalik dago. Eskariak aurkezteko udaletxean jaso daitezke oinarriak. Kirol teknikari lanposturako Magisteritza eta hezkuntza fisikoan espezializatutako titulazioa edo eta SHEEeko lehen hiru urteak eginak izatea eskatzen da. Besteak beste honako hauek dira eskatzen diren datuak: NAN zenbakia, Curriculum vitae, titulazioak eta meritoak egiaztatzen dituen dokumentazioa.

Epea ekainaren 23a artekoa izango da. Instantziak auzoketaren ondoren frogak egingo dira: euskara frogak, administrazio edo juridikoa eta kirol arlokoa.

Lanpostua dela eta jende askok deitu du udaletxera informazio eske eta instantzia batzuk ere aurkeztu dira dagoeneko.

## Orientazio ibilaldira Euskal Herriko hainbat herritako jendea hurbildu zen

Pasa den domekan Euskal Mendizale Federazioak antolatutako orientazio ibilaldia egin zen Aretxabaletan Murruxio M. E.aren laguntzaz. Guztira 33 lagun izan ziren ibilbidean parte hartu zutenak. Horien artean, Eibar, Bilbo, Zarautz, Pasaia, Amurrio, Laudio eta beste hainbat herritako jendea etorri zen. Bi ibilbidez osatu zen orientazio martxa baina talde bakoitzak ibilbide bat egin zuen. Batzuk ez zuten zailtasunik izan ibilbidea ondo egiteko, beste batzuk, berriz, larri ibili ziren jarritako kontrolak aurkitzeko. Azkenean denek lortu zuten ibilbidea ondo amaitzea.

## Udako solstizioarekin batera datoz San Juanak



Goizaldera Santa Ageda mutilek tantaia jasoko dute

Ekainaren 21ean urteko egunik luzeena izango da eta egun horretan hasiko dituzte azatarrek San Juan jaiak. Auzo afaria eta dantzaldia izango dute egun honetan. San Juan bezperan, berriz, kanpai jotze eta etxafleroekin jaiei ongiatorria eman ondoren, ohitura den moduan, San Juan sua egingo dute. San Juan egunez, berriz, 12etan meza nagusia eta ondoren luntxa eta trikitalariekin dantzaldia izango dute.

Kalean, aldiz, San Juan bezperan izaten dira ekitaldiak. Arratsalderako, 6,30etatik aurrera bonba japoniarrak, txistulari eta buruhaundiekin kalejira eta Loramendi dantza taldearen dantzaldia antolatuta daude. Azken hau arratsaldeko 8etan izango da plazan.

Ohiturari jarraituz, gaueko 10,30etan San Juan sua egingo da. Goizaldera Santa Ageda mutilek tantaia jasoko dute herriko plazan eta ordurarte Txinparta taldearekin dantzaldia izango da.

Uztailan zehar hainbat kirol praktikatzeko aukera izango da. Alde batetik multikirola programaren barruan badminton, frontennis eta pelota sartuko dira. 10 urtetik 14ra bitartekoei zuzenduta egongo da. Prezioa: 1000 pezeta. Ordutegia 11,30etatik 12,45tara.

Bestetik, tenisa, badmingtona eta piraguismoa praktikatu nahi dutenentzat ere izango da aukerarik. Tenisean bi talde egongo dira: 15 urtetik 30ra bitartekoak goizez, 10,30etatik 11,30etara eta 8 urtetik 14ra bitartekoak arratsaldez, 3etatik 4etara. Prezioa gazteentzat 1.000 pta. eta nagusientzat 1.500 pta.

Badmingtonen bi ordutegi egongo dira: goizez, 9,30etatik 10,30etara eta arratsaldez, 4,30etatik 5,30etara. Prezioa: 1.500 pta.

Piraguismoa Urkuluko urtegiaren egingo da. Beharrezkoa izango da igerian jakitea. Bi txanda egongo dira: uztailaren 1etik 14ra eta 14tik 29ra. Goizean hiru ordutegi egongo dira 9etan hasi eta ordu batak arte. Arratsaldean, berriz, lau aukera: 4etatik 8etara bitartean. Informazio gehiagorako edo eta izena emateko kultur etxera edo kiroletxera jo daiteke.

Igeri ikastaroa ekainaren 30etik uztailaren 18rarte izango da. Astelehenetik ostiralera bitartean 7etatik 7,45etara. 10-15 plaza egongo dira. Sei urtetik aurrerako

## Udako kirol iharduerak

□ Multikirola, badminton, tennis, piraguismoa eta igeriketa egongo dira



gazteek ere izango dute aukera igerian egiteko. Hauek 5etatik 5,45ra bitartean egin ahal izango dute. Prezioa bazkideentzat 3.000 pezeta eta gainontzekoentzat 4.000 pta da. Izen ematea kiroletxean egin daiteke.

*Okindegia - Gozotegia*

**Aretxabaleta**

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

**ZARAIA**

**TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

**MANTEKA ANAIK**

ESKORIATZA

Tfno 714345

**Bazkari eta afariak**

ERRETEGIA

MENDIOLA

**Astelehenetan itxita**

## Osasun zentrua euskalduntzeko irtenbide bila dabil Loramendi elkarteak eta Udala

### ❑ Sinadura bilketa antolatu da

Azken egunotan Osasun zentrua eta euskararen inguruko orri batzuk ikusi dira kalean. Aretxabaletako Osasun Zentruan euskarak bizi duen egoera kezkarria dela eta Udaleko Euskara batzordea eta Loramendi elkarteak irtenbide bila hasi dira.

Loramendik emandako datuen arabera, Osasun zentruan dauden bederatzita langileetatik sei erdaldunak dira eta euskaldunetako bat behin behineko kontratuarekin dago. Pediatra erdalduna da eta 20 urte arteko ume gehie-

nak euskaraz jakinda, gurasoek itzul-tzaile papera bete behar izaten dute.

Lehenengo urratsa Euskara Batzordeak eman zuen, herriko eta bailarako Osakidetzako arduradunekin hitz eginez. Erantzun eskaxa jaso zenez, Osakidetzari karta bat idatzi zitzaion langilegoa aldatu edo euskalduntze prozesua hasteko. Orduetik hilabete pasatu da eta erantzunik jaso ez denez, Loramendik eta zenbait herritarrek sinadura bilketa antolatu du Osakidetzara bialtzeko.


## Pegatina lehiaketa

Iaz moduan, Andramaixetarako pegatina lehiaketa antolatu du Loramendi elkarteak. Tabernetan buzoiak eta bete beharreko papertxoak jarriko dira, jendeak aproposen ikusten duen lema idatzi dezan. Epaimahaiak, lemaren ironia, originaltasuna eta euskararen erabilera izan dezakeen eragina baloratuko du. Honez gain, inork marrazkiren bat gehituko balio hori ere kontutan hartuko da. Saria 5.000 pezetakoa izango da. Lehiaketa ekainaren 23an hasi eta uztailaren 15ean bukatuko da.

## Andra Mari parrokiaren arrapala jarri da barrera arkitektonikoak gutxitu asmotan

Andra Mari parrokiako eskumaldeko zatian arrapala jarri da. Kontutan hartu behar da jende edadetua dela gehienbat elizara joaten dena eta hauetako askoren egoera fisikoa ez dela batere ona. Hori dela eta, mezetara joateko zailtasunak zituztenek aukera izango dute aurrerantzean zailtasun gutxiagorekin elizara joateko.

Barrera arkitektonikoen alorrean aurrerapausu garrantzitsua eman da Andra Mari parrokiaren. Pausu garrantzitsua izan arren oraindik ere herriko hainbat leku publikotan barrera arkitektonikoak ugariak dira.



# LASAGABASTER

## Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE  
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

## ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43

# Bertsolari gazteak

**Lur Delgado Gipuzkoako eskolarteko bertso paper txapelketan irabazle izan genuen. Bergaran izan ziren finalak. Lurrek 10 urte ditu eta Kurtzebarri eskolan 4. maila ikasten du.**



**Lur Delgado**

*Bergaran egin zen bertso paper lehiaketan irabazle aterako zinela pentsatzen zenuen?*

Ez, sorpresa haundia izan da niretzat. Sorpresa ona.

*Bertsoak idazteko baduzu afiziorik ?*

Bertso txapelketa aurretik gertatzen ibili ginen eskolan. Eskulanetatik ordu erdia erabiltzen genuen bertso praktikorako.

*Nolakoa izan zen proba?*

Txapelketa Bergaran izan zen. Ume asko aurkeztu ginen. Antolatzaileek emandako gaia "Jolas egitea beharrezkoa dugu" izan zen.

Gai horren inguruan bi kopla txiki idatzi behar izan genituen. Koplen hasiera pentsatzea kostatu zitzaidan, baina gainontzekoa nahiko erraz egin nuen.

*Eta sari moduan zer jaso zenuen?*

Hiru bertso liburu: Lazkao Txikirena bat. Honez gain, bertsolaritzaren inguruko bideo bat eta zinta bat ere jaso nuen.

*Eta txapelketa honetan irabazi izanak beste batzutaraukezteko gogoia emango dizu?*

Bai, aurrerantzean beste batzutaraukezteko gogoia emango dizu.

*Nik jolas egiten dut patio ordutan gol sartzen dugunean jartzen naiz ni sutan.*

*Jolas egitea da neretzat onena beharrezkoa dugu egiteko lana.*

**Gaia:** *Jolas egitea beharrezkoa dugu.*

**Doinua:** *Furra furra.*

**G U R E A**

*taberna  
jatetxea*

Durana kalea  
Tfnoa: 79 20 64

**AMETS  
TABERNA**

Iparragirre, 4  
Tfnoa: 79 01 29  
**Aretxabaleta**

**PAGALDAI**

*Opari denda*

Durana, 33 ☎ 79 10 14  
**ARETXABALETA**

**IBARRA  
ESTANKOA**



Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
**ARETXABALETA**

**ARGAZKI**

*Urkiola*

Tfnoa: 79 39 20  
**ARETXABALETA**

**Martini**

BITXITEGIA

*Bere bezeroen zerbitzura*

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72

**INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK**

**RKL**

Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 96 66  
Fax: 77 10 33

# Nortasunik gabe noraezean

**Inoiz Euskal Herrian sakabanaturiko armarriei begira hasita hainbat burutazio izan dut neure artean.**



Arrasateko armarriak dragoiaren irudia du

**E**uskaldunen batasuna, Eizaera eta sorrera isladatu nahi duen sinbolo honetan, hainbat natur-elementu ageri da, honako hauek hain zuzen ere: haritza (Bizkaian), haginak (Gipuzkoan), hiru lehoi (Araba, Lapurdi eta Zuberoan) eta orain dela gutxi arte otso pare ere bai.

Betidanik haritzen erreinua kontsideratu izan den lur zati honetan, aipaturiko zuhaitza guztiz endekaturik daukagu orain, koniferoen mesedetan. Gernikako arbolak pinua edo eukaliptua beharko luke izan gure oraingo gustuei kasu eginda. **Haginen** egoera oraindik eta tristeagoa da, izan ere toki oso puntaletan baino ez baita bizi.

Lehoiena ordea beste historia bat da, gure lurrak inoiz ez baitu animalia hau ezagutu. Erbestetik etorri den sinboloa da, beraz. Antzera gertatzen da herri askotan ageri den herensugearekin ere. Hurrunago joan gabe, Arrasaten duzue adibidea.

### Beste hainbat animalia

Galiziatik hasi eta Kantauriko kostaldeko herrien armarrietan **euskal balea** da nagusi, garai batean jasan zuen gehiegizko arrantzaren erruz dagoeneko desagertua.

Nafarroako Erresumaren ikur zen **arrano beltza** ere dagoeneko Euskal Herritik kanporatua izan da eta Iberiar penintsularen erdi

eta hegoaldeko 130 bikote baino ez dira gelditzen. **Hartz**a ere, hainbat armarriren protagonista dena, gure lurretan aspaldi galdu zen.

Gure herriak beti izan du naturarekiko lotura handia, baina gaur egungo bidean arbasoek zuten izakera galtzen ari gara. Ondorioz gure herrian hainbat kontraesan sortu dira. Esate baterako, zilegi al da gure herriari **Aretxabaleta** deitzea, haritzik (aretxik) ia ez egon arren?

Gaur gauean, oheratzerakoan, pentsatu gai honi buruz.

Mikel Arroiabe



## TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26  
Tfnoa: 79 20 67  
ARETXABAleta

## ARETXABAleta ITURGINTZA

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABAleta

## Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 79 23 53  
ARETXABAleta


## IRIARTE

Umeen  
denda



Durana, 8 Arretxabaleta  
Tfnoa: 79 10 96

BEIRALAN



## KRISTALDEGIA

Loramendi 10 • 79 81 78  
Arretxabaleta

## Artano Taberna

Herriko Plaza  
ARETXABAleta

## IZOTZ Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65  
Arretxabaleta



## Dabid Errasti

# “Antzerkirako ohitura sortu egiten da”

Eskoriatzako irakasle eskolan magisteritza ikasi ondoren, Donostiako antzerki eskolan antzerkilaritzako ikasketak burutu zituen Dabid Errasti atxabaltarrak.

Jendeurreko lehen emanaldiak umeez meriendak egiten zituzten kafetegi batean egin zituen, pailaso moduan. Geroztik Txoronpio, Pantxi eta Pantxo pailasoekin hainbat emanaldi egin ditu eta ETBko Goenkale saioan ere ikusi dugu Don Luis abadearen papera egiten.



zuten antzerkigintzarako. Garai hartakoak dira gaur egungo antzezle eta aktore asko. Gaur egun gobernu aldetik ez da laguntza handia bideratzen. Dirua murriztu egin dute eta Donostiako antzerki eskola ere itxi egin zen. Basaurin dago eskola bat eta Donostian antzerki eta aktore munduan mugitzen direnek sortu zuten beste bat. Bestela hemendik kanpo joan behar da: Kataluniara, Madrilera...

• **Laguntza publikoa eskasa da hortaz. Zer behar du Euskal Herriko antzerkiak?**

Lehenengo eta behin Euskal Herrian antzerki eskola bat falta da. Bigarrenik, antzerki zirkuitoa oso txikia da, hau da, antzerki emanaldietarako herri konkretu batzuetako antzeztokiak bakarrik betetzen dituzte baldintzak eta horrek asko mugatzen du antzezle zirkuitoa.

• **Ikusleagoari dago-kionez, zelakoa da Euskal Herriko antzerkirako afizioa?**

Askotan obra bat egin eta behar moduko publizitatea egin ondoren, ez da lortzen behar haina publiko. Kultura beti esan ohi da defizitariora dela. Hala ere, antzerkirako ohitura sortu egiten da. Herri batzutan, astero, hilero antolatzen dituzte antzerkiak eta horrek ohitura sortzen du. Noizbehinka antolatzen diren herrietan, berriz, zaila da ohitura egotea.

• **Aretxabaletan ez zaitugu asko ikusten, baina bai oster, telebistan eta zenbait antzerkitan. Kontaiguzuz Dabid, zertan diharduzu momentu honetan?**

Orain batez ere pailaso emanaldiekin buru-belarri gabilta. Hamar urte eta gero lehen diska kaleratu dugu eta hau pauso garrantzitsua izan da. Bestalde, Goenkaleko tele-sailean ere jarraitzen dut eta aurrerantzean kabaret emanaldi bat gertatzea daukagu buruan.

• **Antzerkia ala telebista, zer duzu nahiago?**

Lan komikoak gustatzen zaizkit, alaiak direnak. Zuzeneko ekitaldiek bizitasun berezia dute, telebistak ematen ez duena. Telebistan kamara aurrean zaude eta ez publiko baten aurrean.

“Herri batzutan astero, hilero antolatzen dituzte antzerkiak eta horrek antzerkirako ohitura sortzen du”

Publiko aurrean erantzun bat jasotzen da, biziagoa da eta inprobizazioa ere haundiagoa. Zuzeneko eta antzerkia gehiago gustatzen bazait ere, telebistari ere eskua hartu diot azken urtetan eta gustora nago. Bai alde batean bai bestean pertsonaiak interpretatzeko erraztasuna behar da.

• **Nola betetzen da antzezle baten eguna?**

Astean birritan telebistako grabazioak egiten ditut. Gainontzeko egunetan antzerkirako prestatzen gara. Asteazkenetan panderoko klasera joaten naiz eta ostegunetan albokakora.

• **Euskal Herri mailan nola dago antzerkigintza?**

Euskal Herrian indar haundiko taldeak daude eta obra onak egiten dira. Montaje haundiak direnean, hemendik kanpo antzezteko ere gertatzen dira obrak, zirkuitoa haundiagoa izateko. Hala ere, mota guztietako eskaintzak egon behar dute, maila haundikoak eta maila txikiagoak ere bai.

• **Antzerkigintza ikasi nahi duenarentzako aukera zabalago?**

Oso aukera gutxi dago. Orain urte batzuk, instituzio publikoek dirutza handia bideratu

Ekainean udari ongi etorria ematen zaio. Udako solstizioaz batera udan sartu eta urteko egunik luzeena eta gau motzena ospatzen da ekainaren 21ean. Solstizioen inguruan zenbait erritu eta festa sortu ditu gizakiak, San Juan sua horien artean.

Garbi dago, festa hauek galdu egin dutela garai bateko esanahia eta sinesgarritasuna, hala ere, oraindik erakargarri eta herrikoiak izaten jarraitzen dute.

Aretxabaletan San Juan jaiak baditu bere berezitasunak. Usadio horiek batez ere, San Juanetako ohiturak mantentzen saiatu diren herritarrei esker gorde dira.

# Udako solstizioa

Egun honen inguruan sortutako festa eta usadio ugari dira gure herrian

Solstizioen inguruan zenbait errito eta festa ospatzen dela aipatu dugu aurrean. Udako solstizioan udari ongietorria eginez urteko gaurik motzena eta egunik luzeena ospatzen da. Udaren etorrerarekin batera San Juan suak Euskal Herriko baserri eta herriak argitzen ditu.

Garbi dago, batzuetan festa eta erritoak naturako zikloekin lotuta daudela. Eguzkiari, ilargiari eta suari aintzina egiten zitzairen kultuoen zerikusia izan dezakete. Kristautasunaren aurreko gizartearentzako egun paganoa zen ekainaren 21a. Udako solstizioa zen soilik, hau da, eguzkiak lurra ordu gehien argitzen zuen eguna. Baina haientzat ere esanahi berezia zuen.

*“Sorginak eta lapurrek erre, artuek eta garixek erne” moduko koplak kantatzen ziren sua egiten zenean*

Egun honen inguruan sortutako mito, errito eta sinismenak ikusi besterik ez daude.

Kristautasunak bere arrazoiak aintzinako ohitura eta usadioen gainean ezarri behar izan zituen, udako solstizioari San Juan batailatzailearen izena eskainiz.

## Suaren errittoa

Sua da, San Juan jaiaren benetako ezaugarria. Oraindik ere gogor dirau San Juan suaren erritoak baserri eta herrietan. Suak berrikuntza adierazten du, ingurua izurriteengatik babestuz eta garbituz.

Urteko gaurik motzenez sorginek beren dantza misterioitsurekin baserri eta lurrak girotzen zituzten ustea zegoen eta gure aitajaun-amandreek sorginkeri guztien kontra egin behar zuten, bestela, urteko arto eta garia galtzeko arriskua zegoen. Honen kontra egiteko aintzinako gizakiak sua erabiltzen zuten. Horrela, Egileor baserriko Antonio Zuazuak San Juan sua egitean kantatzen ziren koplak dakartza gogora: “Sorginek eta lapurrek erre, artuek eta garixek erne”.

Baserrietan beste kantu hau ere ezagutzen da: “San Juan dala, San Juan dala portaletainan goizean/hamalau atso tronpeta jotzen/zazpi astoren gainean/beste hamalau beste hamalau motroiluaren gainean/sapuak eta sugak erre garixek eta artue gorde/ gora, gora San Juan.

Herrian su bat baino gehiago



Sorginkeri eta izurriteen kontra egiteko gure aitajaun-amandreek sua erabiltzen zuten

pizten da San Juan bezperan. Ezagunena herriko plazan egiten dena da. Baserritarrak ere kalera jeisten dira egun honetan. Suaren epeltasunean bildurik honela abesten da:

*Iaz ere san Juan*

*San Juan zan eta,*

*aurten ere San Juan Bautista.*

*Jesukristoren lehengusua zan,*

*San Juan, San Juan Bautista.*

*Hau da egia, dana guztia*

*kontsolatutzeko mundu guztia.*

*Ibai guztiak agortu dira,*

*arrain gaixoek egarri.*

*Datorren urtian mutikotxuak*

*nun egingo dute igari?*

*Hau da egia, dana guztia,*

*Kontsolatutzeko Euskal Herria.*

Egun handia eta pozgarria izaten zen, gauari nolabaiteko bizitasuna ematen ziona.

### Tantaia, luzea eta zuzena

San Juan bezperan, beste herri askotan moduan gurean ere tantaia altxatzeko ohitura dago. Santa Ageda mutilei dagokie zeregin hori. Egun horretan bertan, mutil koardila bildu eta aurrez begiz jotako zuhaitza mozten da. Tantaiak ez dauka zertan makala (txopua) izan behar, luzea eta zuzena izatea da kontua. Azken urteotan pinua izan da altxatu dena. Usadioari jarraituz, ohostutakoa izan behar du. Gehienetan Egileor baserrian gurdia eskatzen dute tantaia kalera jeisteko. Lehen, zuhaitz bila, ilundu eta gero joaten bazen ere, aldatu egin da ohitura hori, gaur egun arratsalde parterako kalean egoten da.

San Juan sua itzali ondoren zuriketa lanak hasiko dira. Nagusia- goen eta esperientziadunen laguntza ezinbestekoa da hemen. Puntan aza, (hau ere ohostutakoa) eta ikurrina jarri eta igotzeko gertu egongo da. Hortik aurrera mutilen trebesia eta indarra nagusituko da. Plaza beteta eta jendea begira. Mutil batzuk zuhaitzaren azpian eta besteak soketatik tiraka egongo dira.

Zuhaitza goian dagoenean izaten dira unerik larrienak. Azkenean zuhaitza zutik jartzea lortzen denean jendearen txaloak eta mutilen



*Irestuak eta horeiak uxatzeko arantza zuriz eginiko kurtza jartzen da atean*

## “Tantaiak ohostutakoa izan behar du. Ez du zertan txopua izan behar. Luzea eta zuzena izatea da kontua”

poza nagusi izaten da. Altxatakooan tantaia txiza egiteko ohitura dago. Ogia eta gaztaiak laguntzen du merezitako jasoaldia. Milaka istoria dira tantaia inguruan gertatutakoak: tantaia errekarra jausi eta traktoreaz atera behar izan zutenekoa, gruaz altxatu zen urtekoa... Bukaezinezko kontuak.

Lehen San Pedro bezperan kentzen zen tantaia eta tarte horretan baserritarrak berea zela esaten bazuen beretzat gelditzen zen egurra, bestela Santa Ageda mutilena zen.

### San Juan erramiletea kurtza eta ira berdea

San Juan inguru honetan beste usadio batzuk ere badira. Etxeko traste zaharrak ez dira egun honetan erretzen diren bakarrak. “Aurreko urtean batutako kuku fraka, zerbileta lora, San Juan lora, erbasanta, kipula, berakatza, gari eta artoz osatutako San Juan erremilete bedeinkatua erre egiten da. Hurrengo urtean baserriko soloetan banaturik

su ematen zaio”. Antoniok ez du ezagutzen ohitura honen zentzua; baina lurrari egindako omenaldi moduan uler daiteke, baita gaixotasun eta izurriteengandik babesteko ere.

San Juanetako beste ohitura bat atean jartzen den kurtzarena da. Irestuak eta horeiak uxatzeko ipintzen da. Egileor baserrian, beste etxe batzutan moduan, mantentzen da oraindik ere ohitura hau. “Kurtza arantza zuriaz egiten da. Honez gain, ira berdea ere jartzen da ate aurrean”. Eguna argitu orduko irek ebagita eta kurtzatxoek eginda egon behar dute. Iaz moduan, ipiniko dira aurten ere gurutzeak eta irak atean. Eskerrak Antonio bezalako herritarrek ohiturekin jarraitzeko ardura izan duten.

Hala eta guztiz ere, San Juan gaua laister dator eta seguru nago batek baino gehiagok sentituko duela zerbait aldatzen edo berritzen bere gorputz barrenean edo inguruan. Ez dira ba izango sorginen gauzak? Badaezpada piztu sua eta urrundu pentsamendu txarrak.



## Talde atxabaltarra Zaldibarren nagusi

Orlando Piratas talde atxabaltarra nagusitu zen pasa den zapatuan Zaldibar futbito txapelketan. Taldeak Arrasateko Sortu informatika taldearen aurka jokatu zuen finala. 4-2 galtzen joan ondoren azken hiru minutuetan 3 gol sartu eta 4-5 nagusitzea lortu zuten. Zer esanik ez txapelketako garaile ateratzean, atxabaltarrek izan zuten poza. Gainera, Aretxabaletako afizio handia bildu zen finala ikusteko. Gauean antolatzaille, epaile eta finalistek merezitako afaria izan zuten Sara jatetxean. Zorionak guztiei!

## Irure-Unanue nagusitu ziren I.go pala txapelketan

Aitor Irure eta Luis Felix Unanue, Gorka Madinabeitia eta Edorta Antxiaren aurka nagusitu ziren ekainaren 13an jokatu zen I.go pala txapelketako finalean. Bi aldeak gogor lehiatu arren Irure eta Unanuek diferentzia handiaz irabaztea lortu zuten: emaitza 35-18koa izan zen.

Oraindik, 3. eta 4. postua jokatzeko daude. Partidu hau San Juan bezperan, arratsaldeko 7,30etan jokatu da Iturrigorri frontoian. Sarasua anaiak eta Agirre-Uribetxebarria izango ditugu aurrez-aurre. Partidu polita ikusteko aukera izango dugu, beraz.



I.go pala txapelketako finalistak. Unanue, Madinabeitia, Irure eta Antxia.

### ENBOR

*Eloy Borgas Iglesias*

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta  
Tfno-Faxa: 79 02 51



FELIX  
PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33  
Etxekoa: 79 42 56

### MEMESA S.L.

*Industriaren alde*

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA



Zenbaki

## Aholkularitza

Basabe Industrialdea  
Aretxabaleta


Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99

### JOSU

*HARATEGIA*

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08



### ARGÍ-PLASTIC


Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia  
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

## • Joxemi Elizburu •

### “Profesionaletan gero eta leku gutxiago dago eta txirrindulari asko pilatzen da afizionatuetan”

Nafarroako Urdiain herrian burutu zen erlojuz kontrako Euskadiko txapelketan irabazle izan genuen Joxemi Elizburu atxabaltarra. Afizionatu mailako Iberdrola taldean hirugarren urtea bete du aurten. Txirrindularitzan aurrera jarraitzeko gogo eta ilusio haundiz dago 21 urteko afizionatu hau.



#### • Zer moduz joan zaizkizu afizionatu mailako hiru urteak?

Lehenengo urtea soldadutza egiten pasa nuen eta txirrindularitza baztertuta utzi nuen pixkat. Bigarren urtean ez nintzen oso ondo ibili, gorabehera asko izan nituen. Aurten, berriz, hobeto nabil.

#### • Afizionatuentzat aukera asko dago txirrindularitzan jarraitzeko?

Maila handia dago afizionatu mailako karreretan. Profesionaletan gero eta leku gutxiago dago eta txirrindulari asko pilatzen da afizionatuetan. Karreretan txirrindulari askok parte hartzen dugu eta honek maila asko igotzen du.

#### • Afizionatu mailan gogor entrenatu beharra dago?

Bai, norberak bere kontu egin behar ditu entrenamenduak. Goizetan ikasi eta arratsaldetan txirrinduan ibiltzen naiz. Taldeak karrerarako deitzen zaitu eta gertatuta egon behar da horietan partehartzeko. Zein goeratan

zauden arabera eta karreretan nola erantzuten duzun arabera karrera batera ala bestera eramaten zaituzte.

#### • Ze motako karreretan moldatzen zara ondoen?

Erlojuz kontrako karreretan ondo moldatzen naiz, baita mendateak igotzen ere. Sprintak, berriz, ez zaizkit gustatzen.

#### • Xabier Lazpiur anaia izateak eta Julian Gorospe lehengusua izan du eraginik zugan?

Nik uste dut baietz. Gure etxean txirrindularitza oso sartuta egon da eta afizio handia egon da.

#### • Espainiako txapelketarako zela ikusten duzu zure burua?

Bi aste barru Melillan ospatuko diren Espainiako txapelketan parte hartuko dut. Bi proba egingo ditut, bata erlojuz kontrakoa. Maila handia egongo da baina ahalik eta emaitza onena lortzen ahaleginginduko naiz.

### Txikirri txikirri mendi ibilaldia Eskoriatzan

Ekainaren 22an, Eskoriatzako hildako mendizale guztien oroimenez 1.go mendi ibilaldia antolatu da. Ibilaldia goizeko 7etatik 7,30etara bitartean hasiko da eta 7 bat ordutakoa edo gehienez 9,30koa izango da. Bidean jan edateko postuak izango dira. Izen ematea Eskoriatzako kirol elkartearen (Olazar 8 behea) egin daiteke ekainaren 20ra bitartean. Parte hartzeko 500 pezeta ordaindu beharko da. Ez da inongo sailkapenik egongo eta parte hartzen dutenen artean diploma bat banatuko da.

### Arlutz futbito txapelketa uztailean zehar

Aurten laugarren urtea da Arlutz futbito txapelketa antolatzen dena. Ekainaren 30ean hasiko dira partiduak jokatzeko eta horretarako txapelketan izena eman nahi duten taldeek ekainaren 25a baino lehenago egin beharko dute. Txapelketa uztaile guztian zehar luzatuko da; partiduak astean zehar arratsaldetan eta zapatu batzutan ere jokatu dira. Prezioa 5.000 pezeta da eta izena ematerakoan ordaindu beharko da. Urtero moduan txapelketak arrakasta handia izango duela uste dute aurten ere antolatzaileek.

**Ezkutu**  
TABERNA

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 92 01

### Izozkiteki-Gozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11  
Tfnoa: 79 93 58  
ARETXABALETA



### MAPFRE Aseguroak

Errekararren, 3  
Tfnoa: 77 11 76



Bergaran ilea mozteko ikastaroa egin zuen eta 20 urte zituenetik aritu da ileapaintzaile lanetan Marisol Lozano. Orain hiru urte berriz, ileapaindegia ipini eta beste laguntzaile batekin dihardu lanean. Denbora gehiago izanez gero euskara ikastea gustatuko litzaioke.

- **Ile kontutan zer dago modan?**  
Ile oso motza edo bestela ez oso luze ez eta motza. Ile luzea ez da asko ikusten.
- **Jendeak asko tintatzen du ilea?**  
Bai, gorrixka kolorea asko ikusten da.
- **Eta koloretakoa?**  
Gero eta gutxiago ikusten dira,

## “Ileapaindegiko lana asko gustatu behar da, bestela oso gogorra da”

urdira, berdea... moduko koloreak.

- **Zuk tintatuko zenuke?**  
Eraman izan ditut metxoi urdinak. Ile guztia ez nuke tintatuko.

- **Zein da zuretzat ile idealena?**  
Ile oria, baina niri ez zait ondo gelditzen.

- **Ile lisoa ala kizkurra eramaten da gehiago?**  
Lisoa.

- **Gogorra da ileapaindegiko lana?**

Bai, ordu asko dira eta lana gustatu egin behar da.

- **Ilea zaintzen dugu?**  
Gero eta gehiago baina hala eta ere gutxi.

- **Nongoa zara?**  
Caceresekoa.

- **Noiz etorri zinen Aretxabaletara?**  
Bi urte nituenean, beraz, Aretxabaletakoa naizela esan daiteke.

- **Zer da Aretxabaletatik gehien gustatzen zaizuna?**  
Oso herri polita da.

- **Zer egiten duzu astebukaretan?**  
Pasiatu. Ume txikiaz ezin da gehia-

gorik egin.

- **Badu semeak zure antzik?**  
Apur bat bai, baina ez gehiegi. Gizona eta bion antza du.

- **Udan nora joango zara?**  
Kostaldera.

- **Denbora libre gehiago izanez gero, zer egingo zenuke?**  
Gauza asko, aerobica, igeri... eta hori bai euskara ikasi. Gogo handia daukat euskara ikasteko baina ez dago niretzako ordutegi egokirik.

- **Europa komodoena?**  
Bakeroak.

- **Zeri diozu beldur?**  
Ez dakit, bakardadeari, iluntasunari...

- **Zer baloratzen duzu pertsona batengan?**  
Zintzotasuna.

- **200 milioi tokatu ezkeru utziko zenuke lana?**  
Horixe baietz.

- **Dantzatzea ala dantzan ikustea duzu gurago?**  
Dantzatzea.

- **Nola ikusten duzu gaur egungo gazteria?**  
Oso jatorra iruditzen zait.



Marrazkiak: Mikel Arroiabe

**loramendi**  
euskera elkartea

# B



eroa lantegiko ofizinarako argazkia dugu begien aurrean. Bertan ageri den egutegian irakurri ahal izan dugunez, 1931. urteko ekainaren 8an atera zen argazkia. Ez du gaur egungo ofizinen antzik, egia esateko urte asko pasatu dira ordutik eta aldaketa eta aurrerapenak nabarmenak izan dira. Gaur egungo ordenagailuen ordean idazteko makinak ikus daitezke bertan, ezkerretara telefono kabina.

Mende hasieran sortutakoa da Beroa lantegia, baina urte zehatza jakiterik ez dugu lortu. Arruetarrak izan ziren ugazabak. Hasiera baten Luis Arruek poxpolo fabrika izan zuen gaur egun Mitarteko etxeak dauden lekuan, baina azken hau itxi beharrean izan ziren Estatuak poxpoloen monopolioa hartu zuenean. Orduan lantegi berria egin zen gaur egun dagoen lekuan. Produktu desberdinak landu dira bertan: hasiera baten aluminiozko kazuelak, gero tresna elektrikoak: plantxa elektrikoak, kazuela elektrikoak eta baita ostieroak ere. Esan beharra dago, plantxa elektrikoak egin ziren lehen lantegi espainiarra izan zela Beroa. Jakin dugunaren arabera, Luis Arruek Frantziako denda baten ikusi zuen lehen aldiz plantxa elektrikoak, erosi eta Beroan fabrikatu ziren.

Gerra aurretik eta gerrak iraun zuen bitartean, militarrentzako tresneria ere produzitu zen: aluminiozko platerak, basoak eta kantineplorak.

Enpresa garrantzitsua izan zen bere garaian. Aluminioaz gain, kobrea eta latoia ere erabiltzen ziren txapa egiteko. Sekzio desberdinak zituen: fundizioa, laminazioa, entalazioa, prentsa, pulizioa...

Argazkikoak ezagutzea zaila den arren emakumea **Paca Garcia de Kortazar** arabarra izan daiteke eta barrenean gugana begira ari den gizona **Don Antonio Martinez de Agirre**.

Argazkia: Marisol Altuna

## OSKAR

HARATEGIA  
Loramendi, 1  
☎ 79 71 69

## Bedarreta

taberna

Otalora, 19  
Tfnoa: 79 20 89



## BASTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO  
JAKIAK  
GIRO  
ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

# Udan gaude



M. J. Aretxaga

Datorren astean udan sartuko gara. Urtero moduan Atxabaltan ere beste hainbat lekutan legez, berez paganoa den San Juan suarekin emango zaio ongi etorria. Dagoeneko igarten da udan gaudela, ikasleek opporrak dituzte eta baita euren irakasle "sofrituek" ere. Batzuk, oraindik ere, euren azkenengo lanak egiten dabilta. **Kurtzebarri eskolako DBHko 1.go mailakoak** adibidez **Abelino Barriola Deklamazio lehiaketa** irabazi dute. Saria aproposa da sasoi honetarako: lau egunetarako iparraldera bidaia. Zorionak!

Eskola kontuekin jarraituz **Bixente Etxeandiak** omenaldi txiki bat jaso zuen eskolako guraso eta irakasleek eskeini zioten afarian. Dagoeneko jubilatzeke garaia iritsi zaio Bixenteri.

Majo bizi dira jubilatuek ikusi besterik ez dago **Basotxokoek** daramaten trotea. Pasa berri den aste-bukaeran Pirineotara antolatu zuten bidaiatxo bat. Beste batzuei, berriz, Pirioretakoa ez baina Benidorreko seiloa igarten zaie azalean.

Uda liburuak irakurtzeko garai aproposa izaten da.

Batzuk irakurtzearekin ez dute nahiko izaten eta euren sormenean parte hartzea gustatzen zaie. **Iñaki Garmendiak** biblioporrak gidako marrazkiak egin ditu. Ziur nago beste batzutan moduan lan txukuna egingo zuela.

Uda aldera bukatzen da normalean Zaldibarko txapelketa ezaguna. Aurten atxabaltarrak izan dira nagusi. Orlando Piratas taldea. Jokalariak, berriz, **Ander Hernandez, Iker Altuna, Aitor Garciaetxabe, Zigor Bengoa, Gorka Zubiria, Jon Zubillaga, Jokin Idigoras, Jon Arriola, Alberto Garro, Ander Bengoa, Ibon San Migel, Haritz Iturbe, Juan Guisado eta Ricardo**. Taldekide denak aipatuko nituelakoan nago. Horrenbeste izenekin samurra da norbait ahaztea eta. Gainera **Jokin Idigorasi** finaleko jokalaria onenaren saria eman zioten. Zorionak danei.

Kirol kontuekin jarraituz, 1.go Pala txapelketa bukatu da eta irabazleak **Aitor Irure** eta **Luis Felix Unanue** izan dira. Txapeldun orde **Gorka Madinabeitia** eta **Edorta Antxia**. Finala pasa den eguakotxean jokatu zen baina uste dut irabazleak ez zirela asko nekatu, zapatu gauean dantza baten ikusi nituen eta.

Azken momentuan jakin dudan beste kirol kontu bat kontatuko dizuet. **Joseba Larrinaga** Errusiara joango da datorren ekainaren 23tik 30era bitartean. Ekialdeko Estatuetan egiten diren Joku Karpetanoetatik gonbidapena jaso du Euskadiko elbarritu mailako fondoko selekzioak. Ia ez den gehiegi hozten.

**Iñurrategi anaiak** ere hor dabilta kanpo basetik goranzko saialdiak egiten. Ea ba hurrengo alea bitartean berri pozgarriak heltzen zaizkigun.

Bueno eta nigatik hurrengo arte.

## ETXEBIZITZA

- Etxea salgai dago Eskoriatzako San Pedro auzoan. 80 m<sup>2</sup>, guztiz erreformatua. Tfnoa: 71 47 32.
- Garajea salgai dago Murubiden. Tfnoa: 79 00 60-79 21 24.
- Lokal komertziala salgai dago Eskoriatzan, 25 m<sup>2</sup>. Tfnoa: 79 00 60-79 21 24.
- Aretxabaletan ileapain-degi mixtoa alokagai dago. Solariuma eta edertze aretoa ditu. Lokal argia da. Herriaren erdian. 60 m<sup>2</sup>koa. Instalazio guztiak ditu eta funtzionamenduan. 77 12 70-79 94 39.
- Garajea alokagai dago Lausita 5. zenbakian. Tfnoa: 79 05 38 (dendako ordutegia).

**Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali kultur etxean dagoen buzoira edo 151 postakutxatilara edo eta deitu 79 01 05 telefonora.**

- Aretxabaletan pisu bila gabiltza. Tfnoa: 79 10 93.

## DENETARIK

- Motor bat salgai. Kawasaki Vulcan. 77 00 62 (arratsaldez 3etatik aurrera).
- Behar ez duzun orde-nagailuren bat baldin bazu deitu Saretxora. Tfnoa: 79 10 51-79 01 05.
- Remolkea salgai. JB-150 modeloa. Soporte eta aldatzeko erruerekin. Berria da, ezin izan dugu erabili. Oso prezio egokia. 79 81 78.
- Kanping denda salgai. 3 logela, sarrera eta aterpea. Harremanetarako deitu 77 11 45 telefonora.
- Renault 5 GTL kotxea salgai. SS-P. Egoera onean 77 93 30-79 81 35.
- 4/5 plazatako karabana erosiko genuke. Tfnoa: 79 77 85.
- Siberiar husky txakurkumeak salgai. Pedigree bikainekoak eta prezio ezin hobean. Tfnoa: 79 59 85. (Anagatik galdetu).
- Aterkina galdu nuen apirilaren 30ean Korueta inguruan. Aurkitu duenak deitu 79 75 53 telefonora.
- Bizikleta bat (paseokoa) **emateko** daukat. Egoera onean. Tfnoa: 77 01 74.





HITZ GEZIDUNAK

	Erretokiak	Eguneroko janaria	Alegerrak	Eusk. Kom. Autonomoa
	Jateko gelak	*Izena	Zuhaitz-mota	Bukoerak
	Gipuzkoako herria			
	Espanja			Zintzoa
Kaizez igurtzia Jantzi-mota	Anaia, hitz elkarrekin Ipurdiko zuloa	Artsenikoa	Trebe	
		Bizkorra	Adi ezazu	
			Lekul	
			Martuspiat ezagunak	Jainko egyptiarra
Puntu kardinal		Neuk		50
Kantua		Ez emie		
		<b>A</b>	Azpialdea	
		<b>R</b>	* Deitura	Itzali
Erbioa	Bizkaiko herria			Atzikia
Sorgina	Joan den urtean			Pisua kendu
		Bakala	Musikantona (Txiki) Daniel	Röntgen
		500		Ibai nafarra
Atzikia		Ondasuna (Bi hitz) Kasik		
Salto		Ezagutzen dugu		
		Mila		
Tulioa	Hala bedi		Nortasun-agiria	
Finlandia	Kontsonantea		Ukatzeko	
		Balada germaniarrak Kontsonantea		Kontsonantea
				Boraa
Bakal Bikaltza	Sortu zintzena		Ibai gaineko igerabide	

Liburutegiko txokoa



Biblioporrak irakurketa gida eta txontxongilo emanaldia


Aurten ere Udal Liburutegiak irakurzaletasuna bultzatzeko asmoarekin eta irakurleei zer aukeratu errazteko asmoarekin irakurketa gida bat atera du Biblioporrak izenarekin. Gida honetan oportetan irakurteko moduko liburu sorta bat aukeratu dugu adin guztiak kontutan hartuz. Aurten gainera itxura berriarekin dator, formato berria edukitzeaz gain Iñaki Garmendiaren marrazkiekin lagunduta bait dator. Gida dagoeneko jaso ez duenak Liburutegian bertan jaso ahal izango du.

Bestalde eta ikasleek oporrak hartzen dituztela eta Txontxongilo emanaldi bat egingo da gaur arratsaldeko 6etan herriko 4 eta 8 urte bitarteko haur guztientzat Liburutegian bertan; Bihar taldearen Adarbakar Urdina obra izango da ikusgai. Ekintza honekin gogora arazi nahi zaie haurrei udan ere Liburutegia zabalik aurkituko dutela; Liburutegiak abuztuan bakarrik hartuko ditu oporrak.

Joseba Lopez de Armentia

HABE

JEROGLIFIKOA



Gipuzkoako herria

HABE

\* Soluzioak 18. orrialdean

KONTZERTUA

ASTURIASEKO DURO FELGUERA LANGILEEN ALDE

Ekainaren 20an Gaueko 10etan

Arrasateko kiroldogian

Aurretik: 1000 pzta.

Bertan: 1200 pzta.

LA POLLA DIXEBRA KOMA LATZEN PI LT

**M**obiliario  
**ARENZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07  
ARETXABAETA



**Modan  
dagoen guztia**  
Iparragirre, 4  
Tfnoa. 79 21 24

**Orain  
likidazioan**

**MIKELOS**

**Moda  
Guztia Zuretzat**

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67  
ARETXABAETA

**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa  
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

**Matikua  
jatetxea**

Bertako mortzilak eta  
txorizoak

Eguazten arratsaldetan itxita  
Azatza auzoa  
ARETXABAETA



**Amaia-Berri, S. L.**

**Gasa- Klimatizazioa-Isurkor  
Teknologia**

Otalora, 18 behea Tfno-Faxa: 77 06 49  
ARETXABAETA

**Iber**

✻ Paperdenda ✻

Otalora, 2  
Tfnoa: 79 79 24

**ARBULO  
HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5  
Tfnoa: 79 02 24  
ARETXABAETA

**EKAINA**

**19**

eguna

**DIPOSITIBA EMANALDIA  
PERU, MENDIKATE ZURIA.  
HUESKARAN, ALPAMAYO,  
MACHU-PICHU, CUZCO,  
HUARAZ. Luis Urkiak, "Taxitok",  
emango du. Arratsaldeko 7etan  
Loramendi elkartean.**

**TXONTXONGILO  
EMANALDIA**

**BIHAR taldearen Adarbakar  
Urdina obra. Arratsaldeko 6etan Udal  
liburutegian. 4-8 urte bitarteko haurrei  
zuzendua.**



**20**

egukotxa

**ORGANO, TXISTU ETA  
KORUAREN KONTZERTUA**

Txistuan Iñaki Barrena, organoan Jose  
Luis Frantzesena eta Aretxabaletako  
abesbatza. Gaueko 9,30etan parrokian.

**21**

zapatua

**MUSIKAREN EGUN BEREZIA  
Kalejira eta kontzertua.**

Arratsaldeko 6etan Herriko Plazan.

**SAN JUAN JAIK AZATZAN**

Auzo afaria eta ondoren dantzaldia.

**MENDI IBILALDIA**

Txikirri-Txikirri mendi ibilaldia  
Eskoriatzan.

**22**

domeka

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Aretxabaleta-Arlaban-Landa-  
Legutiano-Otxandiano-Dima-  
Zornotza-Durango-Matiena-Elorrio-  
Kanpanzar-Arrasate-Aretxabaleta. 102  
km.

**SOLUZIOAK**

**HITZ GEZIDUNAK**

	L	O	A	E
J	A	N	G	E
B	E	I	Z	A
B	E	L	A	K
K	A	A	S	I
S	O	I	N	E
I	P	A	R	N
I	P	U	I	N
E	R	E	R	M
A	Z	T	I	A
T	Z	A	O	N
J	A	U	Z	I
T	L	A	M	E
S	U	O	M	I
A	A	A	M	A

**JEROGLIFIKOA: Beizama**

23

astelehena

**SAN JUAN BEZPERA****SAN JUAN JAIK AZATZAN**

Kanpai jotzea eta etxaflero jaurtiketa.  
10,30etan San Juan sua.

24

martizena

**SAN JUAN JAIK AZATZAN**

12,30etan meza nagusia. Ordu letan  
luntxa eta ondoren Aretxabaletako  
trikitilariekin dantzaldia.

29

domeka

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Aretxabaleta-Kanpazar-Elorrio-  
Matiena-Durango-Arriaundi-Urretxua-  
Bizkaiko begiratokia-Gerrikaitz-  
Bolibar-Markina-Etxebarri-San Migel-  
Elgoibar-Aretxabaleta. 105 km.

**Musikaren egun berezia**

Ikasturte amaiera heldu dela eta, ekainaren 21ean Leizarra Musika eskola eta Aretxabaletako abesbatzaren eskutik, kalejira eta kontzertuak izango dira. Urtean zehar landutako emaitzak erakustera emango dituzte. Arratsaldeko 6etan Herriko Plazan.

**Ikastaroak****TAI CHI IKASTARO INTENTSIBOA**

Ekainaren 27tik 30era., Araotzen Oñatin. Ikastaroa eta alojamentua 27.000 pezeta. Apuntatzeko eguna ekainaren 22a arte. Informazioa eta apuntatzeko: 71 64 99-55 64 07.  
Irakaslea: Josune Goikoetxea.

**Rolba S.A. zapata dendan ibilitakoek bazkaria egingo dute San Pedro egunez, ekainaren 29an. Bazkaria Taberna Berri jatetxean izango da eta aurretik falta direnen oroimenez meza egingo da 12etan parrokian.**

**Lantegi honetan ibilitakoei deia egiten zaie bazkarirako. Joateko asmoa izanez gero Dunix 79 34 17 edo Agustinarekin 79 68 68 harremanetan jarri daiteke.**

**BEHARREZKO TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

**Udaltzaingoa**

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

**Denetarik**

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

**ARETXABALETA****CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

**ITURGINTZA**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

# HAU DA NAGUSITASUNA

ALBOKO AIRBAGS SISTEMA BERRIA.  
MONDEOK BABESTEN ZAITU.



Norbere kontroletik ihes egiten duten egoerak daude. Horregatik Mondeo berriarentzat alboko airbags-ak diseinatu ditugu.

Baina hori ez da Mondeo berriak babesteko egiten duen guztia. Ziurtasunean harantzago doa.



Estruktura integrala, deformazio guneekin eta aurrealde barra indartzailearekin. ABS balaztatze elektroniko banaketarekin edo ABS trakzio kontrolaz. Aurrealdeko suspentsio independentea eta atzealdeko Quadralink suspentsio sistema. Segurtasun uhal ainguraketa eta pretensoreduna.

*Mondeo* HAU DA  
NAGUSITASUNA

**2.426.000 pta.tik aurrera**

**MUGARRI**

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tel: 79 07 44 / 54  
Faxa: 79 62 54

